

Ana eta Patuñõ

Cristina
Solerrek
idatzia

Elkartea

Ilustrazioak:

Juanjo
Jiménez



Idalzea: Cristina Soler

Diseinua eta maketazioa: MIC argitaletxea

Jatorrizko testua: Cristina Soler

Ilustrazioak: Juanjo Jiménez

Argitaratzailea: © Eskubide Sozialen eta Agenda 2030
Ministerioa

Idazkaritza Nagusi Teknikoa. Argitalpen Zentroa

NIPO linean: 129-23-023-9


<https://cpage.mpr.gob.es/>

Baimena ematen da irakaskuntza-erakundeek, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko beste edozein erakunde pribatuk material hauek online zabaltzeko eta erreprografikoki erreproduzitzeko, irakaskuntza- eta dibulgazio-helburuekin. Bi kasuetan, bere osotasuna errespetatu beharko da, baita argitalpen-kredituak ere.

Beste edozein erabileratarako, baimena eskatu beharko zaio Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030 Ministerioari, horien gaineko eskubideen titular den aldetik.

Ana eta Patunö Elkartea









HURRENGO EGUNEAN





Hemen bainatu, ilea moztu eta orrazten ditugu. Bide batez, Milak eta Nikok bainua behar dute...



Freskagarria dirudi!
Amaitzen dugunean, bainatu ditzakegu.





Ba al duzu esperientziarik animaliekin? Ba al dakizu bainatzen?

Ez, beti nahi izan dut txakur edo katu bat edukitzea, baina ez dut lortzen ama konbentzitzea.

Kasu horretan, zortea duzu eguraldi ona egiten duelako, prestatu zaitez blai eginda egoteko.







Hasi dugun leku berera itzuli gara, harrera-
lekua. Ordenagailu honetan, adoptatu
daitezkeen animalien kartelak egiten ditugu;
gero, gure sare sozialetan zintzilikatzen ditugu,
interesa duen familiarik dagoen ikusteko.



Ez dira gauza handia, baina gutxienez
ikusgarritasuna ematen diegu gure lagun
iletsuei.




Ziur Luisek kartel hobeak egingo
lituzkeela, horrelako gauzak bikain
ematen zaizkio.



Ez daude gaizki, hobe
hori beste ezer baino.

Horixe bera diot nik
ere! Etortzen diren
txakur eta katu
guztien sarrera ere
erregistratzen dugu,
baita azkenean
adoptatzen direnena
ere.






Beno, ni banoa.

Eskerrik
asko zure
laguntzagatik.

Bihar arratsaldean
berriro etorriko
naiz.

Primeran, hemen
itxarongo zaitut.



Zer moduz joan
zaizu?

Oso ondo, esperientzia asko gustatu zait.
Carlosek azaldu dit maskota hitza ez dela
zuzena txakur edo katu bati buruz hitz
egiteko. Egokiena konpainia-animalia da.

Bai interesgarria! Pozten naiz
esperientzia gustatzen zaizulako,
baina gogoratu ikasketak alde
batera ez uztea.



Elkartera joan aurretik egiten ditut zereginak, eta lotara joan aurretik errepasatzen dut.

Pentsatze hutsak nekatu egiten nau. Nik siesta egin behar dut eta pixkanaka-pixkanaka zereginekin eta ikasketekin hasi.



Ea hau guztia egitean karteiei begirada bat ematen diezun.

Bai, aurrerago ikusiko ditut.



ARRATSALDEAN, ELKARTEAREN BULEGOAN

Kaixo! Zer egin dezaket gaur?

Kaixo, Castañito eta Canela paseatzera joateko irrikitan daude. Etorri nahi duzu?


Noski!



Beste zerbait egin behar baduzu, ez duzu nirekin etorri behar, ez dut uste oso zaila denik.

Ez kezkatu, niri ere ondo datorkit paseatzera irtetea. Gainera, lehen aldietan zuekin egotea gustatzen zait. Gero zure kontura joaten utziko dizut.








ETXEAN





BI ASTE GEROAGO, ANAK BADAKI ELKARTEAN
MOLDATZEN, CARLOSEN LAGUNTZARIK GABE.







Ikusi dut kiratsa, arkakusoak eta kaparrak dituela; gainera oso argal dago. Orain al baitariarengana eramango dugu azter dezaten.

Gizajoa, ez dakit nola egon daitekeen horrelako jendea. Hain zaila al da elkarte batera eramatea, hortik abandonatu beharrean?

Batzuek uste dute animaliek bakarrik moldatzeko gai direla, baina inola ere ez.



Tira, laguntxo, zein ona zaren, behin ondo garbitu eta elikatzen zaitugunean, berehala adoptatuko zaituzte. Ederra zara, eta otzana.

Onik zaude, laztana.



Zorriak eta kaparrak ditu. Pipeta bat jarriko diot parasitoak hiltzeko. Gogoratu ezin izango duzuela bainatu egun gutxi barru arte. Hobe da pixkat lasai uztea.

Eskerrik asko zure zaintzagatik.



EGUN BATZUK GEROAGO, ELKARTEAREN BAINU-GUNEAN

Ana, ondo baderitzozu, nik emango diot lehen bainua, zuk laztanduz eta txutxu-mutxuren bat emanez lasaitzen laguntzen didazun bitartean.


Noski. Gixajoa, dardarka dago.











Bide batez, Ana, oraindik ez diot izenik jarri erreskatatu dugun txakurrari. Zuri utzi nahi nizun ohore hori. Zer izen jarri nahi diozu?

Benetan aukeratu dezaket izena?

Noski, erreskatatzen lagundu zenidan, beraz, gutxienezkoa da..

Thor deitu nahi nioke.

Ederto, bihar arte.

Thorri agur esango diot eta banaoa. Agur.








Thor gixajoa, ze gaizki pasatu duen. Egia esan, adoraragarria da eta Ana oso arduratsua izaten ari da. Ez dakit ba...



Kartelik egin al duzu bidali dizkizudan argazkiekin?

Bai, denak dauzkat. Amaitu dut. Ea zer iruditzen zaizkizun.

ESCRIVINT...







HURRENGO EGUNEAN, LUISEN TUTOREAK ONTZAT EMAN DU INSTITUTUKO SARRERAN KARTELAK JARTZEA



GEROAGO, ELKARTEAN











HURRENGO GOIZEAN INSTITUTUAN

Asko pozten naiz zuegatik,
badakit Thor asko maite
duzula.

Amak esan zidanean beste
familia batek hartu nahi
zuela, ia negarrez hasi
nintzen.



Atzo Carlosekin hitz egin nuen, oso jatorra da.
Esan diot nirekin konta dezakeela kartel gehiago
egiteko, eta gaur arratsaldean familia asko
joango direla animaliak ikustera.

Adopzio gehiago lortzea espero dut.




GEROAGO





ADOPZIO ARRATSALDE BIZI BATEN ONDOREN, CARLOS, ANA ETA THOR BAKARRIK GERATZEN DIRA BULEGOAN





Ana eta Patuna Elkartea

Sinopsia:

Anak beti nahi izan du txakur bat, baina bere amak ez du uste txakurra edukitzeko prest dagoenik. Datuna Elkartean boluntario izateko aukera duenean, Anak ez du zalantzarik. Ikus ezazu Anarekin nola laguntzen dieten elkarteek abandonatutako animaliei.



MINISTERIO
DE DERECHOS SOCIALES
Y AGENDA 2030

SUBSECRETARÍA
DE DERECHOS SOCIALES
Y AGENDA 2030

DIRECCIÓN GENERAL
DE DERECHOS
DE LOS ANIMALES